



www.uzturpe.net



3 URTEKO HAURRA IKASTOLAN INTEGRATZEKO IDEIAK

Ikasturtea hasi aurreko udan familiak ohar hauek oso kontuan hartzea komeni da:

Ez idealizatu Ikastola haurrari "toki miresgarria" izango balitz bezala azalduz. Ikastolak haurra bere etxetik ateratzen du eta ez da bere inguru naturala; honek gehienetan sufrimendua eragiten dio, batzuetan haurrak sentimendu hori kanporatzen ez badu ere.

Ikastolarekin ez dugu mehatxatu behar. Soberan daude era honetako esaldiak: "ikusiko duzu ikastolara joandakoan, han dena aldatuko da eta andereñoak esandakoa egin beharko duzu".

Elkarrekin komentatu ikastolara egindako bisitan ikusitakoa, gogoratu ikusi dituzuen gauza berriak, egingo dituen jarduerak, norekin jolastuko duten...

Ardura handiegiak ez eskatu haurrari eta "gizontxo" edo "emakumetxo" indartsu eta ausartak bezala ere ez hartu. Negarrik ez egiteko ez esan, ulertu bere egonezina.

Gutxieneko autonomia ohituratan trebatu (beren gauzak jaso, ura edan, galtzak igo...) Haurrak ikastolara eraman behar duen mantala, koxina eta argazkia maitasun handiz prestatu.

Etxetik landuko dira besteenganako begirunezko eta elkartasunezko jarrerak. Ez bultza haurrak jarrera defentsiboak izatera, beraz, mota honetako esaldiak saihestea komeni da: "jotzen bazaituzte zeure burua defenditu". Horren orde, jarrera positiboa azaltzen duten esaldiak hobetsi: "esaiozu minik ez emateko, ez zaizula gustatzen". Egoera gatazkatuak elkarrizketaren bidez konpontzen saia daitezela, beren pentsamendua osatzeko eta beren barne bulkadak bideratzeko.

Jarrera hauek familian ohitura bihurtzen direnean, haurraren ziurtasuna ere handitu egiten da eta horrek haurra ikastolara egokitzea erraztuko du.

➤ **EKARRI BEHARREKO GAUZAK:** haurraren historia adierazten duen argazki bilduma azpian testua idatzirik (2 urtekoen gelan erabilitakoa); familiaren argazki bat; karneta neurriko haurraren 2 argazki txiki; kuxina izenarekin; edalontzia izenarekin; aldatzeko jantziak, guztiak izena jarrita; fardela erabiltzen duenarentzat fardelak, toailita bustiak eta toaila txiki bat; aurrean botoiak dituen mantala; jangelakoentzat beste mantala, zapia, hortzetako pasta eta zepiloa.



www.uzturpe.net



Uzturpe Ikastola

IDEAS PARA LA INTEGRACION DE LOS NIÑOS-AS DE 3 AÑOS EN LA IKASTOLA

Creemos conveniente que, antes de comenzar el curso, las familias tengan en cuenta estas sugerencias.

No idealicéis la Ikastola como si fuera "un lugar maravilloso". La ikastola "saca" al niño fuera de su casa, todavía no es su entorno natural; muchas veces, y aunque no siempre lo demuestre, le produce sufrimiento.

No le amenacéis con la Ikastola. Están de más frases como: "ya verás cuando vayas a la Ikastola, allí todo cambiará y tendrás que hacer lo que diga la profesora".

Charlad sobre las cosas que habéis visto el día de la visita, recordad las cosas que habéis visto, las actividades que harán, con quien jugará...

No le pidáis demasiada responsabilidad y no esperéis que se porte como un "hombrecito", como una "mujercita" valiente y atrevida. No le pidáis que no llore, comprended su malestar.

Enseñadle pequeñas cosas que aumenten su autonomía: beber agua del vaso, subirse los pantalones, guardar algún juguete...

Preparad con mucho cariño las cosas que debe llevar, la bata, el cojín y la foto.

Trabajad desde casa actitudes de respeto y solidaridad hacia los otros. No le empujéis a tener actitudes defensivas y evitad frases como "si te pegan, defiéndete". En su lugar priorizad frases que promueven actitudes positivas "dile que no te haga daño, que no te gusta". Nosotros les ayudamos a arreglar las situaciones conflictivas por medio del diálogo, de esta manera se forma su pensamiento y aprenden a encauzar su impulso. Cuando esta actitud es habitual también en la familia, el niño, la niña adquiere seguridad y su adaptación a la Ikastola es mejor.

Cuando estas actitudes se convierten en hábito desde la familia, la seguridad del niño/a aumenta y le ayuda a adaptarse mejor.

LO QUE DEBEN TRAER A LA IKASTOLA: el album de fotos con la historia personal del niño/a (sirve el del aula de 2 años); una foto de la familia; 2 fotos pequeñas tamaño carnet; un cojín y un vaso con su nombre; ropa para cambiarse con su nombre; pañales para el que lo necesite con una toalla pequeña y toallitas húmedas; una bata con los botones delante; otra bata para los que se quedan en el comedor, una servilleta, pasta y cepillo de dientes.